# Xedapen Orokorrak

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

**7046**

207/2008 DEKRETUA, abenduaren 9koa, Euskadiko Lan Autonomoko Elkarteen Erregistro Berezia eratu eta arautzen duena.

Lan Autonomoaren Estatutuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 19.1.b) artikuluan ezarrita dagoenez, langile autonomoek afiliatzeko eta aurretiazko baimenik gabe lanbide-elkarte bereziak sortzeko eskubidea dute. Lege horren 20.3 artikuluak dioenez, langile autonomoen elkarteak erregistro berezi batean inskribatuko dira, eta erregistro horrek ez du zerikusirik izango sindikatuek, enpresaburu-antolakundeek edo bestelakoek dituzten erregistroekin, horretarako ezarritako bulego publikoak erregistra ditzakeenekin. Azkenik, Lan Autonomoaren Estatutuaren Legearen seigarren xedapen gehigarrian eta 20.3 artikuluan aurreikusten denez, autonomia-erkidegoetan lan autonomoko elkarteen erregistro berezi bana eratuko da.

Horregatik, eta langile autonomoek lanbide-elkarteetako kide izateko eskubidea gauza dezaten, dekretu hau eman behar da. Beraz, bere eskumenak betetzeko behar diren zerbitzuak ordenan jarri eta antolatzeko administrazio honi dagokion autoantolatzeko ahalmena erabiltzen da.

Horrenbestez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari entzun ondoren, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko abenduaren 9an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

***1. artikulua.–*** Helburua.

Dekretu honen helburua Euskadiko Lan Autonomoko Elkarteen Erregistro Berezia sortzea da, hala aurreikusita baitago Lan Autonomoaren Estatutuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legearen seigarren xedapen gehigarrian.

***2. artikulua.–*** Izaera.

1.– Euskadiko Lan Autonomoko Elkarteen Erregistro Bereziak administrazio-izaera dauka eta zerbitzu publikoa da, nola herritarrentzat, hala bertara jo nahi duten erakunde publiko eta pribatuentzat.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL**

**7046**

DECRETO 207/2008, de 9 de diciembre, por el que se crea y regula el Registro Especial de Asociaciones de Trabajo Autónomo de Euskadi.

El artículo 19.1.b) de la Ley 20/2007, de 11 de julio, del Estatuto del Trabajo Autónomo, establece el derecho de las y los trabajadores autónomos a afiliarse y fundar asociaciones profesionales específicas sin autorización previa. Sigue diciendo su artículo 20.3 que las Asociaciones de trabajadoras y trabajadores autónomos se inscribirán en un registro específico y diferenciado del de cualesquiera otros de organizaciones sindicales, empresariales o de otra naturaleza que puedan ser objeto de registro por la Oficina pública establecida al efecto. Por último, la Disposición Adicional Sexta y el artículo 20.3 de la Ley del Estatuto del Trabajo Autónomo prevén la creación, en el ámbito territorial de las Comunidades Autónomas, del correspondiente Registro Especial de Asociaciones de Trabajo Autónomo.

Teniendo en cuenta lo anterior y con la finalidad de establecer el cauce para que el ejercicio del derecho de asociación profesional de las y los trabajadores autónomos sea real y efectivo, se hace necesario dictar el presente Decreto. Se ejerce, por tanto, la facultad de autoorganización que le corresponde a esta Administración para ordenar y organizar los servicios precisos para el cumplimiento de sus competencias.

En su virtud, oído el Consejo Económico y Social Vasco, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 9 de diciembre de 2008,

DISPONGO

***Artículo 1.–*** Objeto.

Es objeto del presente Decreto la creación del Registro Especial de Asociaciones de Trabajo Autónomo de Euskadi previsto en la Disposición Adicional Sexta de la Ley 20/2007, de 11 de julio, del Estatuto del Trabajo Autónomo.

***Artículo 2.–*** Carácter.

1.– El Registro Especial de Asociaciones de Trabajo Autónomo de Euskadi tiene carácter administrativo y se configura como un servicio público para los ciudadanos y las ciudadanas así como para las entidades públicas o privadas interesadas en acceder al mismo.

2.– Erregistro bakarra egongo da Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzari atxikita egongo da, haren menpean geratuta.

***3. artikulua.***– Inskripzioaren izaera.

Lan autonomoko elkarteak erregistro horretan inskribatzea elkarteen eratzearen eta estatutuen berri zabaltzeko baizik ez da izango.

***4. artikulua.***– Eginkizunak.

1.– Euskadiko Lan Autonomoko Elkarteen Erregistro Bereziak honako eginkizun hauek ditu:

a) Langile autonomoen elkarteak inskribatzeko egiten dituzten eskariak jaso eta izapidetzea.

b) Langile autonomoen elkarteak inskribatzeko egindako eskariak bat ba ote datozen ikustea, hain zuzen ere, elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren printzipioekin, eta bereziki haren estatutuen edukia bat ba ote datorren lege organiko horren II. kapituluan zehaztutako betebeharrekin, bai eta Langile Autonomoaren Estatutuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 20. artikuluan ezarritakoarekin ere.

c) Zaintzea inskribatzeko eskatu duten lan autonomoko elkarteen izena ez dela lehenago inskribatutako antzeko beste lanbide-elkarte batzuena bezalakoa, edo nahasgarri gerta daitekeela, bai eta profesional autonomoa dela argi uztea ere.

d) Eskatzea inskribatze-eskariak izapidetzean behar diren beste txosten, eta batez ere Sailaren zerbitzu juridikoen txostenak.

e) Ebazpenak ematea lan autonomoko elkarteen eskarien, egintzen edo inskriba daitezkeen hitzarmenen inskribatzeari buruz.

2.– Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariak du erregistro honetan sartu behar diren administrazio-espedienteak izapidetu eta ebazteko eskumena.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretua aldatzea.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuaren 17. artikuluari z bis) atala erantsi zaio. Honela dio:

2.– Este Registro será único para toda la Comunidad Autónoma del País Vasco, con adscripción y dependencia de la Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

***Artículo 3.***– Naturaleza de la Inscripción.

La inscripción de las Asociaciones de Trabajo Autónomo en dicho Registro lo es a los meros efectos de publicidad de la constitución y de sus Estatutos asociacionales.

***Artículo 4.***– Funciones.

1.– Son funciones del Registro Especial de Asociaciones de Trabajo Autónomo de Euskadi las siguientes:

a) Servir de órgano de recepción y tramitación de las solicitudes de inscripción que realicen las Asociaciones de trabajadoras y trabajadores autónomos.

b) Comprobar la adecuación de las solicitudes de inscripción relativas a las Asociaciones de de trabajadoras y trabajadores autónomos, a los principios de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del derecho de asociación, y en especial, del contenido de sus estatutos a los requisitos determinados en el capítulo II de la citada Ley Orgánica, así como a lo dispuesto en el artículo 20 de Ley 20/2007, de 11 de julio, del Estatuto del Trabajo Autónomo.

c) Comprobar que la denominación de las Asociaciones de Trabajo Autónomo que soliciten su inscripción no sean similares o induzcan a error o confusión con las de otras asociaciones profesionales de su misma clase previamente inscritas, así como que se deduzca claramente su carácter de profesional autónomo.

d) Solicitar cuantos informes se consideren precisos en la tramitación de las solicitudes de inscripción y, en especial, los de los servicios jurídicos del Departamento.

e) Resolver sobre la inscripción de las solicitudes de las Asociaciones de Trabajo Autónomo, y de los demás actos, hechos o acuerdos susceptibles de inscripción.

2.– El órgano competente para tramitar y resolver los expedientes administrativos que han de tener acceso a este Registro es el Director de Trabajo y Seguridad Social.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Modificación del Decreto 315/2005, de 18 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

Se añade un apartado z bis) al artículo 17 del Decreto 315/2005, de 18 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, con el siguiente contenido:

«z bis) Lan autonomoarekin zerikusia duten eskumen- eta erakunde-eginkizunak erabiltzea, Euskadiko Lan Autonomoko Elkarteen Erregistro Bereziaz arduratzea ere».

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau betetzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

***Bigarrena.***– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 9an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

«z bis) Ejercicio de las funciones competenciales e institucionales relacionadas con el Trabajo Autónomo, así como la llevanza del Registro especial de Asociaciones de Trabajo Autónomo de Euskadi».

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se autoriza al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social para dictar cuantas disposiciones procedan al objeto de dar cumplimiento al presente Decreto.

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.